


LEINNeKo ikasle talde bat BERDEAGO proiektuan Durangoko udalaren eskutik.

2012/11/07

Berdeago ingurugiro, iraunkortasun eta eraginkortasun energetikoaren inguruan, gizartea kontzientziatzeko eta arlo honetako produktu eta zerbitzuak azaltzeko dinamizazio egitasmoa da, azoka batez eta ekintza batzuez osatua.



“**Berdeago** proiektuaren bidez, gizartea kontsumo energetikoaren baitan sentsibilizatu dezakegu” diote ikasle hauek. **LEINN** graduko ikasleak dira; Iñigo Peña, Durangokoa, Xabi Igoa, Aramaiokoa, Ander Iturriagagoitia, Bergarakoa, Unai Magdaleno, Eibartarra, Jon Etxebarria, Etxarri Aranatz-ekoa eta Matxalen Palacio, Durangotarra. “Horretarako bi bide dauzkagu: batetik, ekintza desberdinak eginez adin desberdinetako pertsonak ondo pasa dezaten; eta bestetik, merkatuan existitzen denaren berri ematea egunerokotasuneko kontsumoa murrizteko”.

Helburu horrekin, ekintza hauek antolatu dituzte irailetik urtarrilla bitartean: (ikusgai www.berdeago.com webgunean)

Iraila: Gidatze eraginkor kurtsoa eta lehiaketa.

Urria: Bertako zuhaitzen landaketa.

Abendua: Bizikleta estatikoen bidez gabonetako zuhaitza argizatuko dute.

Urtarrila: Urtarrilaren 25, 26 eta 27 Euskadiko lehenengo Ingumen Iraukorraren inguruko azoka ospatuko dute Durangoko Landako gunean.

Azoka:

Programaren ekitaldi nagusia da, garraio iraunkorra, etxebizitzetako eraginkortasuna, birziklapena eta azken berrikuntzak bezalako gaiak jorratuko dira. Azokaren helburua, ingurugiroarekin, iraunkortasunarekin zein eraginkortasun energetikoarekin, ustez inplikaturik egon daitezkeen eragile pribatuak eta publikoak zein gizartea sentiberatzea da.

Gainera, Durango, urtean hilabete batez, ingurugiroko gaien eta ingurugiroarekin lan egiten duten enpresen toki erreferente bihurtzea nahi dute LEINN graduko ikasle hauek. Horretarako, Landako Guneak(Durango) eskaintzen duen baliabide eta erraztasunak dituzte eskura. Horretaz gain, ekitaldi honetan gutxienez 50 erakusketari eta 6.000 bisitari espero dituzte. Azkenik, aipatu, programa honek, Durangoko Udalaren eta Tokiko Agenda 21aren babes osoa duela. Baita, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren babes.

